

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZUIAKO UDALA

Zuiako udalerrian baserriak eta etxebizitzak berreskuratzeko 2023ko diru-laguntzak deitzen dituen Zuiako Udalaren Osoko Bilkuraren 2023ko maiatzaren 11ko erabakiaren laburpena

BDNS (Identif.): 696319.

Diru-laguntza orokorreki buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convectoria/696319>).

Lehenengoa. Onuradunak

Laguntza hauen onuradun izan ahalko dira pertsona fisiko edo juridiko, pribatu edo publiko guztiak oro, ondasun-erkidegoa edo beste edozein unitate ekonomiko edo ondare bereizi, nortasun juridikorik ez izan arren, baldin eta jabe, errentari, gozamendun edo eskubide errealen titular badira, edo familia bakarreko etxebizitza edo birgaitu beharreko eraikineko elementu pribatiboak erabiltzeko eta aprobetxatzeko legitimatzen duen beste edozein eskubide badute, betiere Zuiako udalerrian kokatuta badaude.

Bigarrena. Xedea

Deialdi honen xedea da Zuiako udalerrian erabilera nagusia bizitegirakoa duten baserriak, etxebizitzak eta eraikinak berreskuratzeko eta birgaitzeko diru-laguntzak arautzea, arkitektura-ondareari eusteko eta ohiko etxebizitza edo alokairuko etxebizitza erabiltzera bideratzeko, Euskal Gobernuaren alokairu-programen barruan. Laguntzak lehia-erregimenean eta Zuiako Udalaren plan estrategikoan xedatutakoa betez emango dira.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Udalaren Osoko Bilkurak 2023ko maiatzaren 11an onartu zituen diru-laguntzak eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdi honetan araututako laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak 1522.780.000. aurrekontu-partidatik aterako dira. Partida hori udalaren 2023. urterako aurrekontu orokorreko 40.000,00 euroz hornituko da.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

2023. urtea.

Seigarrena. Beste datu batzuk

Eskabidea zein deialdiaren oinarriak www.zuia.eus orrian (Izapideak/Diru-laguntzak) edo Oinarrietan azaltzen dira.

Murgia, 2023ko maiatzaren 19a

Alkate-udalburua

UNAI GUTIERREZ URKIZA